

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen digu, eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela argi dugu. Horretarako ondo antolatuko gara ez izateko inolako arazorik.

Alde batetik, hilabetero zenbait gastu izango ditugu, zeinek gehiago zein gutxiago ekoiztuta beti berdina izango diren, hau da, kostu finkoak. Kostu finkoak honakoak dira:

- Alokairua: biltegia eta denda
- Biltegia: apalak, tresnak...
- Dendari dagokionez, ordenagailuak, apalak, mahaiak, aulkiak, eta abarrekoak izango ditugu.
- Ordaindu beharreko beste kostu finko bat gure dendako eta bulegoko altzairuak/altzariak dira. Honetan apalak, mahaiak, ordenagailuak, inprimagailuak, aparatu teknologiko guztiak, ordainketak egiteko kutxak, aulkiak... beharko ditugu, bulegoaren eta denda fisikoaren tresnak hain zuzen ere. Kostu hauek hasierako inbertsioaren zati dira.
- Azkenik, soldata kostu finko bat izango da.

Gure armairuaren prezioa ez da oso altua izango, eta hori gure estrategia izango da. Horrela, biztanleriaren gehiengoa gure armairua erosi ahal izango du, kalitatea beti kontuan hartuta.

Horri lotuta, denda fisikoa izango dugunez, gure armairuaren mekanismoa eta estruktura ekoizten duten enpresei ordainduko diegun dirua aldakorra izango da ekoitzitako armairu kopuruaren arabera delako.

Enpresaren kostu aldakorrak: Ura, argia, ofizinan eta dendan erabiltzen den materiala, konponketak, garraioaren enpresari ordaintzen diegun dirua eta konponketa materialak.

Kostu zuzenak, aldiz, arestian jarritako kostu gehienak dira, eta zeharkakoak aldiz argia ura etab dira.